Bestalde, egoki deritzogu gaur egun Ekonomia Gaietako Errektoreordetzak daukan egitura bere horretan uzteari, harik eta arlo hori berriro egituratu arte.

Beraz, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean jarri ondoren 2005eko apirilaren 27ko ohiko bileran, eta EHUren Estatutuetako 254.1. eta 256.1. artikuluen bidez eman dizkidaten ahalmen babesean, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Eva Ferreira García andrea Akademia Antolakuntzako errektoreorde izendatzea.

2.– Ekonomia Gaietako errektoreordearen eginkizunak Akademia Antolakuntzako errektoreordeari esleitzea, behin-behinekoz.

3.– Irakaskuntza-eginkizun guztietatik salbuestea.

4.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta haren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke errektoreari, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen denetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean.

Leioa, 2005eko maiatzaren 13a.

Errektorea,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

Por otra parte, en este momento se considera conveniente mantener la actual estructura del Vicerrectorado de Asuntos Económicos, en tanto en cuanto no se proceda a una reestructuración de áreas en esta materia.

Por ello, previo informe al Consejo de Gobierno en la sesión ordinaria de 27 de abril de 2005, y en virtud de las facultades conferidas por los artículos 254.1 y 256.1 de los Estatutos de la UPV/EHU,

RESUELVO:

1.– Nombrar Vicerrectora de Organización Académica a Dña. Eva Ferreira García.

2.– Asignar provisionalmente las funciones del Vicerrectorado de Asuntos Económicos a la Vicerrectora de Organización Académica.

3.– Proceder a la exención total de sus obligaciones docentes.

4.– Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Rector en el plazo de un mes desde su notificación o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 13 de mayo de 2005.

El Rector,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

# Oposaketak eta Lehiaketak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2865

AGINDUA, 2005eko maiatzaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, amaiera ematen diona hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoko eta hezkuntzako ikuskarien kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiari.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak (LOGSE), bere bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarri die hezkuntza-administrazio eskudunei nazio-mailako lekualdatze-lehiaketetarako deia egin beharra, irakasle funtzionario guztiek parte hartu ahal izan dezaten, horretarako baldintzak betez gero, berdin dio zein hez-

# Oposiciones y Concursos

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 2865

ORDEN de 26 de mayo de 2005, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se pone fin a la convocatoria de concurso de traslados de funcionarios docentes pertenecientes a los Cuerpos de Inspectores al servicio de la administración educativa y Cuerpo de Inspectores de Educación.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE), establece en su Disposición Adicional Novena la obligación para las administraciones educativas competentes de convocar concursos de traslados de ámbito nacional en los que podrán participar todos los funcionarios docentes, cualquiera que sea la administración educativa de

kuntza-administrazioren mendeko diren, edo zer administraziotik sartu diren.

Azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak, ikastetxeetako gobernuari, ebaluazioari eta parte hartzeari buruzkoak, gero ezarri duenez, berriz, hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoko eta hezkuntzako ikuskarien kidegoko funtzionarioek ere hezkuntza-ikuskaritzan lanpostuak betetzeko lehiaketetan har dezakete parte, LOGSEren bederatzigarren xedapen gehigarriak dakarren aginduaren arabera.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren 1. artikuluak dioena betez, hezkuntza-administrazio publikoek nazio-mailako lekualdatze-lehiaketak bi urtez behin deituko dituztela xedatu baitu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko urriaren 13ko Aginduz onartu zen hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoko eta hezkuntzako ikuskarien kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdia.

Agindu horren bigarren oinarriaren arabera, lekualdatze-lehiaketari behin-behineko erabakia eman aurretik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira deitutako lanpostuak, horien funtzionamendua ohartemanda baldin badago hezkuntzarako plangintza orokorrean. Hala ere, ez da kidego horretarako lanpostu hutsetarako deialdirik egin.

Beste alde batetik, Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren Ebazpen batek onartu du hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien eta hezkuntzako ikuskarien lanpostuak betetzeko deialdira onartutakoen behin betiko zerrenda. Hortik ateratzen denez, Administrazio honen mendeko funtzionario batek hartu du parte, hezkuntza-administrazio honen mendeko ikuskaritza-zentroetarako eskariak eginez.

Ondorioz, kontuan hartuta deialdiaren tramitazioari ezin zaiola jarraipenik eman, lanpostu hutsik atera ez delako, eta eskatzaile bakarraren parte hartzeak ezin duelako erresultarik eragin Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eremuan, bidezko da amaiera ematea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko urriaren 13ko Aginduz onetsitako lekualdatze-lehiaketari, agindu horren bidez hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoko eta hezkuntzako ikuskarien kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdia egin baitzen.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Amaiera ematea hezkuntza-administrazioaren zerbitzuan dauden ikuskarien kidegoko eta

la que dependan, o por la que hayan ingresado, siempre que cumplan los requisitos para ello.

Posteriormente la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la participación, la evaluación y el gobierno de los centros docentes establece que los funcionarios pertenecientes al Cuerpo de Inspectores al servicio de la administración educativa y Cuerpo de Inspectores de educación, podrán participar en los concursos para la provisión de puestos en la Inspección de Educación, de acuerdo con el mandato contenido en la Disposición Adicional Novena de la LOGSE.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 1 del Real Decreto 2112/1998, de 2 de octubre, que establece que las administraciones públicas educativas competentes convocarán concursos de traslados de ámbito nacional cada dos años, por Orden de 13 de octubre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno vasco, se aprobó la convocatoria de concurso de traslados de los funcionarios docentes pertenecientes a los Cuerpos de Inspectores al servicio de la administración educativa y Cuerpo de Inspectores de educación.

La base segunda de la Orden citada dispone que las plazas que se convocan se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco con anterioridad a la resolución provisional de este concurso de traslados, siempre que su funcionamiento se encuentre previsto en la planificación general educativa, no resultando convocados puestos vacantes para este Cuerpo.

Por otra parte, aprobada por Resolución de la Directora de Gestión de Personal la relación definitiva de participantes admitidos a la convocatoria para la provisión de puestos de trabajo de Inspectores al servicio de la administración educativa e Inspectores de Educación, se constata la participación de una funcionaria dependiente de esta Administración que realiza peticiones a centros de Inspección dependientes de esta administración educativa.

En consecuencia, determinada la imposibilidad de continuar la tramitación de la convocatoria por que no se han convocado plazas vacantes ni por la participación del único solicitante se pueden generar resultas en el ámbito de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, procede poner fin a la convocatoria de concurso de traslados aprobada por Orden de 13 de octubre de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca concurso de traslados de funcionarios docentes pertenecientes a los Cuerpos de Inspectores al servicio de la administración educativa y Cuerpo de Inspectores de Educación.

Por lo expuesto

RESUELVO:

*Primero.–* Poner fin a la convocatoria de concurso de traslados de los funcionarios pertenecientes a los

hezkuntzako ikuskarien kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdiari, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko urriaren 13ko Aginduz onetsi baitzen.

*Bigarrena.–* Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko sala egokian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko maiatzaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

Cuerpos de Inspectores al servicio de la administración educativa y Cuerpo de Inspectores de Educación, aprobada por Orden de 13 de octubre, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

*Segundo.–* Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 2005.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2866

AGINDUA, 2005eko apirilaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) CEP «Zabala Berria» LHI ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Aztertu dugu Bilboko (Bizkaia) «Zabala Berria» Lehen Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko aurkeztu den proposamena.

Espedienteari Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Onartu egiten CEP «Zabala Berria» LHI ikastetxeari izen espezifikoa aldatzea: aurrerantzean CEP «Iruarteta» LHI deituko da. Ikastetxe hori Bilbao udalerrian dago (Bizkaia), Juan Garai kalean, 51-bis, eta 48016145 kode-zenbakia du.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 2866

ORDEN de 15 de abril de 2005, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueba el cambio de denominación específica del CEP «Zabala Berria» LHI, de Bilbao (Bizkaia).

Examinada la propuesta presentada para el cambio de denominación específica del Colegio de Educación Primaria «Zabala Berria», de Bilbao (Bizkaia).

Resultando que el expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia, y que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente.

Vista la legislación aplicable en la materia,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Se aprueba el cambio de denominación específica del CEP «Zabala Berria» LHI, número de código 48016145, sito en la calle Juan de Garay, 51-bis, del municipio de Bilbao (Bizkaia), que pasará a denominarse CEP «Iruarteta» LHI.